

BI-1640-2017 LG zk.



/ 30. aldizkaria  
2019ko uztaila

*Muskizek  
Institutu berri  
bat izango du*

/5. orrialdea



*Udalerri  
lagunkoia  
izateko lanean*

/2. orrialdea

*Ikastolako  
kantxa uda  
ostean irekiko  
da*

/3. orrialdea

*San Juan  
ikastetxean euri-  
uren sarearen  
konponketa*

/4. orrialdea

*Emocionan-dog,  
txakurrekin  
hezteko modu  
bat*

/6. orrialdea

## Editoriala

### Guztiontzako Muskiz

Ekintza asko egin ditugu elkarrekin, gure herria, Muskiz, hazi eta hobetu dadin. Jakin badakit oraindik lan handia egin behar dugula, baina nire konpromisoa da, bai eta Udalbatza osoarena ere, legegintzaldi honetan lan egiten jarraitzea, gure udalerrria garatu eta hiri ireki eta lagunkoi bilakatu dadin.

Gure balioei jarraikiz lan egingo dugu, hau da, konpromisoari eta gardentasunari jarraikiz, erkidego irekia lortzeko asmoz betiere, berrikuntza, bizi-kalitatea, auzokideen parte-hartzea, irisgarritasuna hobetzea eta mota horretako oinarriak aintzat hartuz. Ezin dugu ahaztu auzo guztiak garatzeak eta auzo horien hiri-eraldaketak duen garrantzia.

Honako hauek izango dira gure ardatzak: enplegua, langabeen kopurua murriztuko duten planekin; gizarte-zerbitzuak eta gizarte-politikak; gazteen hezkuntza eta prestakuntza; kultura eta aisialdia, udalerrria sustatuko duten

“Gure balioei jarraikiz lan egingo dugu, hau da, konpromisoari eta gardentasunari jarraikiz

hainbat jardueraren bidez; gure ingurunea sustatzea eta horren proiektzio turistikoa (bide berdeak, ibai-pasealekuak, Arena hondartza, El Pobal, Muñatones Gaztelua, Itsasbur...); ingurunea zaintzea, sentsibilizazioan oinarritutako kanpainen bidez; gure herritarren elkarbizitza eta segurtasuna; eta auzokide guztientzat lagunkoia izango den Muskiz sortzea. Halaber, merkataritza eta tokiko elkarte-ehuna sendotzen ari gara.

Eskerririk asko gudan jarri duzuen konfiantzagatik. Muskizen alde lan egiten jarraituko dugu, herritar guztiarekin batera.

**Borja Liaño Abarrategi**  
Muskizko alkatea



## Muskiz udalerrri lagunkoi bihurtzeko lanean

Otsailaz geroztik, Muskizen herritarren parte-hartze prozesu bat egiten ari dira, Euskadi Lagunkoia sarera atxiki ondoren, udalerrri lagunkoia bihurtzeko. Batez ere adinekoen zuzendutako prozesu honetan, Muskiz herri lagunkoia bihurtzeko jardura garrantzitsuenekin osatutako ekintza-plan bat egiteko ideiak eta proposamenak jaso dira. Horretarako, talde motor bat jarri da martxan, eta, aurrez, udalerriko

bizilagunei egin zaizkien 300 inkesta baino gehiagotan ateratako beharrak eta proposamenak aztertzeko xedea du. Talde motor honetan udalerriko hamar erakundek hartu dute parte, baita politikariek eta udal teknikariek ere. Gai hauek jorratu dituzte: espazio publikoen analisia, garraioa, etxebizitza, segurtasuna, komunikazioa, gizarte zerbitzuak, enplegua, kultura, merkataritza eta elkarte ehuna.



## Uda honetan Muskiz bistatuz gero, partekatu eta irabazi

Udan, Muskizeko argazkiak biltzeko, “Gure ingurua” proiektua sustatuko du Muskizeko Udalak berriz ere, herritarren artean. Aurreko edizioetan ekimen honek izandako harrera onaren ostean, bizilagunei parte hartzeko gonbita egin zaie, meatze-herri honen espazio eta paisaia naturalak sare sozialetan partekatu dituzten.

Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra Instagram, Facebook eta Twitterren #GureMuskiz2019 traolarekin argitaratutako argazkien artean, 2019ko Musika eta Umore jardunaldietarako abonamendu bana zozketatuko da sare sozial bako-

tzean, irailean. Zenbat eta argazki gehiago igo, saria lortzeko aukera handiagoa izango duzu. Gainera, argitalpenak euskaraz nahiz gaztelaniaz egin daitezke.

Kanpaina honen bidez, udalak, herritarren parte-hartzearekin, udalerrria modu pertsonal eta berezi batean ezagutarazi nahi du, bai Muskizen bai kanpoan, eta turismoa sustatu nahi du natur paisaia ugari eta dotoretasun historiko handiko txokoak dituen eskualdean.

Parte hartzeko oinarriak Muskizeko Udalaren web orriari kontsultatu daitezke.



## Ikastolako kantxa uda ostean irekiko da

**M**uskizeko Ikastolak kirol pista estalia du dagoeneko. Ekimen honekin, Muskizeko Udalak erantzuna eman die ikasleek eguraldi txarretik babestutako aisialdi, jolas eta ekintza anitzetarako espazio bat izan zezaten Ikastolak egindako eskariei. Kantxa berria eskolaz kanpoko ordutegian ere erabili ahal izango da, baina, horretarako, obraren amaierako ziurtagiria jaso arte itxoin behar da. Aurreikusten denez, uda ostean eta ikasturte hasierarekin batera, kantxa erabili ahal izango dute kirol klubek edo aisialdiko jardueretako elkarteek.

1.000 m<sup>2</sup>-ko azalera duen egitura eraiki ondoren (800 m<sup>2</sup> erabilgarri) –zentroaren beraren arkitektura-ildoari jarraikiz–, esparruan zoladura jarri da, baita margotu eta bukaera eman ere, saskiak, ateak eta zutabe eta ateetako babesak jarritz. Estalkiaren egiturak berezko argiteria du, eta epe luzerako eraginkortasuna bilatu nahi izan da, eraikuntza jasagarriaren bila.

Margotzean, arauzko luzerako areto-futboleko/eskubaloiko kantxa bat eta hiru zeharkako kantxa sortu dira, eremu txikiagoan, saskibaloian eta eskubaloian jokatzeko. Egindako ekimenak Eskola Zentroarekin eta esparruko erabiltzaile poten-

tzialekin adostu dira, hau da, udalerriko hainbat kirol klubekin.

### *Dibertimendurako gunea*

Ikastolak dagoeneko erabiltzen duen estalpe honek balioko du udalak eguraldi txararekin ekintzak edo azokak egin nahi dituean erabiltzeko babestutako espazio gisa ere, kirol klubek eman ahal dioten erabileraz gain. Horregatik, estalitako pista berriak oinezkoentzako sarrera bat dauka jolas-parketik hurbilen dagoen fatxadan. Proiektu honi esker, gunea kiroldegi txiki bat izango da, Ikastolako ikasleentzako jolas espazio izateaz gain.



## Barbadun paduraren bidea ingurura egokituko da

Barbadun ibaiko paduraren ingurunea lehengoratu eta egurrezko pasabidea eraiki ondoren, oholen bidez mugatutako ibilbide batzuk sortu ziren, Muskiz eta Zierbena lotzeko. Horregatik, Kosta Sailekoak lan batzuk egiten ari dira, bide bakar bat, errepidetik gertuen dagoena, egokitzeko, eta Udalak paduraren eta populazio gunearen artean egindako bideari jarraipena emateko. Akabera bera izango du: 2,20 metroko zabalera duen bidea, agregakin lotuarekin, 10 cm-ko zabalera eta 6 cm-ko lodiera duten oholen artean, 50 cm-tik behin lurrera ainguratuta tetrazero bitartez.

Bide berria orain dagoen 2,50 metroko zabalera bidearen gainean egingo da, eta alboak lur begetalarekin estaliko dira. Gainerako bideak utzi egingo dira, baina begetazioak itxiko ditu, pixkanaka. Aldi berean, CLH enpresaren instalazio zaharren sarrera erregularizatzen ari dira, errepedearen eta oinezkoen bidearen arteko drainatzeak garbituz eta egokituz, inguru horretako faunarentzat beharrezkoa den lasaitasuna bermatzeko.



## ***Autonomia parkeko zoladura berritzea***

Obran, 467 m<sup>2</sup>-ko zoladura jarraitua berritu da; hala, kaltetutako eremuak konpondu dira, eta goiko eremua zelai artifizialarekin azkendu dute, hura ezartzeko beharrezkoa den erretxina jarritz. Berritze honen inbertsioa 14.400 eurokoa izan da, guztira.



## ***San Juan plazako umeentzako parkearen sarrera berria***

Udalak sarrera berria egin du San Juan plazan, Las Palmeras-en ondoan, dagoen parkean, irisgarritasuna hobetzeko asmoz. Haurren jolasak eta espaloia lotzen dituen hormigoizko bide bat eraiki dute, zonaldean lohi asko sortzen baitzen eta txikienak sartzera oztopatzen baitzuen horrek.



## ***Argiteria publikoa indartzea***

Muskizko Udalak argiteria publikoa indartzeko lanak egin ditu udalerriko hainbat eremutan. Eki-men honekin, gune batzuk hobetu nahi dira; izan ere, eguneko momentu batzuetan argi gutxi egoten denez, oinezkoentzat arriskutsuak izan daitezke, oso jende gutxi pasatzen baita.



## ***Itsaslurreko ezpondak babesteko obren hasiera***

Muskizko Udalak pasa den urtean eguraldi txarra zela-eta eroritako ezponden eremua aseguratze obrak abiaraziko ditu. Izan ere, eremua moztuta egon da oinezkoentzako. Udalak 157.143,10 euroko inbertsioa egin beharko du obrak egiteko, eta hiru hilabete iraungo dute. Gauzatu bitartean, eremua erabat moztuko da, lanak modu seguruan egin ahal izateko. Betetze lanak egingo dira saihesten eremuan eta eroritako ibarrean; boloiak 32 mm-koak izango dira, eta zementu sulforresistentea injektatuko zaie. Gainera, ezponda sare batekin babestuko da, eta habeak, gunitatua eta kofratua ere jarriko dira, horien grabitatea dela eta ez jausteko.



## ***San Juan ikastetxe ondoan euri-uren sarearen konponketa***

San Juan ikastetxe ondoko euri-uren galeria konpontzeko, kaltetutako harresi batzuk botako dituzte lehenik, eta harresi berriak eta goialdeko lauza eraikiko dituzte, bai eta bidearen ibilgua erregularizatu ere, higatutako zonaldeetan hormigoiarekin indartuz. Obra honen inbertsioa 46.000 euro ingurukoa izango da eta uztailearen hasieran hasiko dira.



## Muskizeko Institutu berri bat izango du

**M**uskizeko institutu berria errealitate bat da udalerrirantz eta meatze-herritik atera gabe formazioa jasotzeko aukera izango duten etorkizuneko ikasle guztientzat. 2017ko martxoan, udalbatzak adostu zuen Eusko Jaurlaritzari lurra behin betiko lagatzea. 3.000 metro koadro baino zertxobait gehiago dira. Horietatik 2.673 jolastokirako den lursailari dagozkie; 350 metro koadro inguru gimnasioaren azalerarenak dira, eta beste 200 metro koadro, Udalak aurreko legegintzaldian erosi zituenak. Muskizeko Udalak beharrezko lurra eman ondoren, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila gauzatze proiektua idazten ari da;

500.000 euro inguruan zenbatetsi da. 2020. urtean ikusiko dira azpiegitura berri honen lehen obrak.



## Muskizeko bizilagunek Sopuertako igerilekuak erabili ahalko dituzte udan

Muskizeko bizilagunek udan Sopuertako kanpoko igerilekuak erabili ahalko dituzte udalerrian erroldatuta daudenen prezio berean. Udalak ordainduko du aldea, azken urteetan bezala, igerilekuak amaitu arte. Familia abonamendua edo banakakoa atera nahi dutenek udalera jo beharko dute. Bertan, errolda ziurtagiria emango zaie, eta udarako abonamendua ateratzeko igerilekuan aurkeztu beharko dute. Interesdunek familiako edo banakako abonamenduak bakarrik atera ahal izango dituzte. Eguneko sarreretan erroldatu gabeen prezioa ordaindu beharko dute.



## MUSKIZ KULTURA AGENDA

**1-17 UZTAILA**  
MEATZARI PLAZA

**Uda Gaztea**  
Udalekuak

**13-14 IRAILA**  
LA RABUDA

**La Rabudako jaiak**

**5-7 UZTAILA**  
LA GLORIETA

**La Glorietako jaiak**

**15 IRAILA**  
PLAZA SAN JUAN

**Nekazaritza azoka**

**7 UZTAILA**  
POBEÑA

**Pobeña 1890**  
Birsortze historikoa

**21 IRAILA**  
PLAZA SAN JUAN

**Ehiza eta Arrantza azoka**

**15-18 ABUZTUA**  
LA RIGADA

**La Rigadako jaiak**

**28-29 IRAILA**  
POBEÑA

**Socorrillo**

**8-9 IRAILA**  
SAN JUAN PLAZA

**Txakur Lehiaketa**

**12 IRAILA**  
SAN JUAN PLAZA

**Mello Saria**  
VIII. edizioa

**6-8 IRAILA**  
POBEÑA

**Socorroko jaiak**



## Elkarrizketa



### **Emocionan-dog, txakurrekin hezteko modu bat**

Cantarrana Eskola Muskizeko lau eskola zentroetako bat da. Eskolako Agenda 21 ekimenean kolaboratzen du, eta, aurten, lehenengoz hartu du parte gizartean ingurumenarekiko konpromiso eta sentsibilizazio handiagoa lortzeko proiektu batean. Egin duen eta emaitza ona izan duen jardueretako bat izan da Emocionan-dog. Jarduera horretan, txakurren bidez, haurrak hezi eta emozioak garatzen dituzte, bai eta animaliekiko errespetua landu ere. Jarduera hau gertutik ezagutzeko, Susanarekin, Cantarrana Eskolako haur hezkuntzako irakaslearekin, hitz egin dugu:

**G/ Emocionan-dog proiektua amaitu ondoren, zeintzuk dira zuen ustez ikasleen garapenean eta ikaskuntzan lortutako onurak?**  
*E/ Emocionan-dog proiektua amaitu ondoren, metodologia honen onuren gaineko inpresioak oso positiboak dira; gainera,*

**“Emozioak bereizten eta bideratzen ikasi dute**

*ikasle guztientzako jarduera dinamikoa eta praktikoa izan da.*

**G/ Nola erantzun dute haurrek jarduerak txakurrekin –ezohiko kideak– egitean? Emozioz hartu dute?**

*E/ Oso pozik hartu dute; egia da batzuk urduri zeudela eta beste batzuk beldur zirela, txakurrekin esperientzia traumatikoren bat izan dutelako. Ikasle gehienek ilusio eta emozio handiz hartu dute parte tailerlean, eta iraun duen bitartean enpatia handia izan dute txakurrekin. Euren emozioen gainean ere asko ikasi dute, esate baterako, horiek bereizten eta bideratzen.*

**G/ Cantarrana Eskolan ezagutzen al zenukiz txakurren laguntzaz egindako hezkuntza emozionalaren bidezko ikasketak tailerrak?**

*E/ Egia esan ez genituen ezagutzen txakurrekin*

*egiten den umeentzako ikaskuntza tailer hauek, eta esperientzia polita izan da guztientzat.*

**G/ Emaitzak ikusita, zuen ustez udalerriko zentro ezberdinek metodologia honen aldeko apustua egin beharko lukete? Eta egin duzuenetan, jarraitu beharko al zenukete?**

*E/ Cantarrana Eskolan uste dugu interesgarria dela metodologia hau gehiagotan erabiltzen jarraitzea, onurak ikusi baititugu. Zentroko irakasle naizen heinean, iruditzen zait Lehen Hezkuntzako haurrekin ere proiektu hau lantzea egokia dela.*



## **Eskolako Agenda 21ek ingurumenaren inguruko sentsibilizaziorako proposamenak jasotzen ditu**

Eskolako Agenda 21en xedea da gure gizartearen ingurumenarekiko konpromisoa eta sentsibilizazioa handitzea, eta duela 10 urte baino gehiagotik lantzen dute proiektu hau Muskizeko Udalak eta eskola zentroek. Gainera, 2018-2019 ikasturtean zentro berri bat sartu da: Cantarrana Eskola. Hala, Somorrostro CF, Muskiz BHI eta San Juan Ikastetxearekin batera parte hartu du. Aldizkarian jasota daude ikasturte honetan ikastetxeetan egindako jarduerak. Aurten, elkarrekin balore batzuk irakasten saiatu dira, hala nola ingurumena zaintzea, hondakinak murriztea, animaliekiko errespetua, elikadura osasuntsua... Guztiek ere ingurumen jasangarriagoa

izaten laguntzen dute. Gainera, Ikastetxeen arteko Foroa egin dute. Bertan, elkarrekin lan egin zuten udalerriko kutsadura akustikoa aztertzeko, bai eta ikasleak zarata iturri posibleen konponbidea bilatzeko inplika zitezten ere. Horretarako, udalerrian soinu giro atsegineko eta kutsadura akustikoko guneen audioak eta bideoak grabatu ziren. Hauek izan ziren aurkeztutako proposamenetako batzuk: kotxe elektrikoa eta bizikletaren erabilera sustatu; errepideen alboetan soinu isolamendu panelak jarri; ikastetxeetako sirenen bolumena jaitsi; bideetako abiadura mugatu, eta zerbaki bakoiti/bikoitia duten ibilgailuen erabilera txandakatu.